

Topaguneak 'Irakurri, gozatu eta oparitu' antolatu du bosgarrenez

Irakurzaletasuna sustatzeko asmoz, elkarlanean jarriko ditu bosgarren urtez euskara elkarteak, liburutegi publikoak eta liburu dendak Topagunea Euskara Elkarten Federazioak 'Irakurri, gozatu eta oparitu' kanpainaren bitartez.

Kanpaina Liburuaren Nazioarteko Egunarekin batera abiatuko da, apirilaren 23an, hiru hilabetez luzatuz. Gipuzkoari dagokionez, Deba, Lazkao, Andoain, Asteasu, Amasa-Villabona eta Urnietan gauzatuko da.

Goiburuak dioenez, lehenengo pausoa irakurtzea da; euskaraz irakurtzea, hain zuzen ere: herriko liburutegira joan eta euskarazko edozein liburu mailegian hartzea eta, noski, irakurtzea. Gozatzeari dagokionez, liburua irakurri eta liburutegira itzultzerakoan, fitxatxo bat bete behar du irakurleak, liburuak zer inpresio eman dion azalduz. Fitxaren truke, erosketa-txekea emango dio liburuzainak, hitzartutako liburutegian erabiltzeko.

Azken pausua liburu bat oparitzea denez -nork bere buruari egindako opariek ere balio dute-, liburutegian jasotako txartelarekin pezioaren %25 ordainduko du dendan beste euskarazko edozein liburu erostean. Euskara elkarteko kidea izanez gero, prezioaren erdia ordainduta edukiko du txartelari esker. Egitasmoak Eusko Jaurlaritzaren, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundien eta hainbat argitaletxen (Alberdania, Erein, Elkar, Ibaizabal, Pamiela eta Susa) laguntza du.